



III. ERANSKINA.

SARREREN ETA GASTUEN ORRIETAKO ZUTABEETAN SARTU BEHARREKO KONTZEPTUEN LABURPEN ORIENTAGARRIA; ERAGIKETA BAKOITZAREN ZENBATEKOAK ERREGISTRATZEN DIRA ORRI HORIETAN

I- SARREREN SAILKAPENA

A) **“BESTELAKOAK” ZUTABEA:** zutabe hau azkena jarrita dagoen arren, hemendik ekingo diogu azalpenari, hau izango baita komodin gisa balio izango digun zenbatekoen zutabea. Beren jatorria edo izaera dela eta aurreko zutabeetako kontzeptuek barne hartzen ez dituzten sarrerak “BESTELAKOAK” zutabean adieraziko dira. Beraz, bertan erregistratuko dira sarrera eragiketen zenbatekoak aurreko zutabeetako kontzeptuekin bat ez datozenean edo haien zenbatekoa non jarri ez dakigunean.

B) **“TASAK” ZUTABEA:** lehenengo zutabe honetan biltzen dira kontzejuak eginiko zerbitzuen prestazioaren ondoriozko sarrerak:

- Uraren tasak
- Hilerriko tasak
- Kontribuzio bereziak
- Isunak
- Kontzejuak ematen dituen zerbitzuen ondoriozko bestelako sarrerak.

C) **“TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK” ZUTABEA:** erakunde publikoetatik datozen sarrerak, gastu arrunta finantzatzeko, dirulaguntza bidez, kontrapartidarik gabe, eta obra edo inbertsioetarako erabiltzen ez direnak. Era honetako sarrerak, adibidez:

- Arabako Foru Aldundia (AFA) **TEFFF 1. seihilekoa**
- Arabako Foru Aldundia (AFA) **TEFFF 2. seihilekoa**
- Aurreko urteko TEFFF likidazioa. TEFFF aseguruaren erregularizazioa
- Bestelako dirulaguntza arruntak (ekitaldi bakoitzean errepikatzen direnak).

D) **“ONDARE SARRERAK” ZUTABEA:** kontzejuaren ondarearen errentetatik lortzen diren sarrerak biltzen dira:

- Bankuko kontuen interesak
- Finka eta higiezin errentak
- Larreak, barrutiak, egurretarakoak, errentamenduak.
- Bidezidorrengatiko auzo ekarpenak, etab.

E) **“KAPITAL TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZAK” ZUTABEA:** obra eta inbertsioak finantzatzeko erakundeetatik jasotako sarrerak biltzen dira:

- Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren dirulaguntzak
- Obretarako udalaren dirulaguntzak, Eusko Jaurlaritzarenak, etab.
- Obretarako edo ibilgetua erosteko bestelako dirulaguntzak.

F) **“JASOTAKO MAILEGUAK” ZUTABEA:** zutabe honetan biltzen dira kreditu eragiketa, mailegu edo foru lerro bat hitzartzeagatik jasotako sarrerak.



G) “FINANTZA INBERTSIOAK” ZUTABEA: zutabe honetan biltzen da bankuko libretara itzultzen den dirua edo inbertsio fondoak (altxorraren letrak, gordailuak, inbertsio fondoak, etab.) berrerostearen bidez libretara transferitzen den dirua.

2- GASTUEN SAILKAPENA

- A) **“BESTELAKOAK” ZUTABEA:** sarrerei dagokien zutabeaz azaldutakoaren antzera, zenbatekoen zutabe honek komodin gisa balioko digu. Beren jatorria edo izaera dela eta aurreko zutabeetako kontzeptuek barne hartzen ez dituzten gastuak “BESTELAKOAK” zutabeaz adieraziko dira. Beraz, bertan erregistratuko dira gastu eragiketen zenbatekoak aurreko zutabeetako kontzeptuekin bat ez datozenean edo haien zenbatekoa non jarri ez dakigunean.
- B) **“ZERBITZUAK EMATEAGATIK GASTUAK” ZUTABEA:** kontzejua behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren gastu arruntak bilduko dira:
- Ura
 - Argiztapen publikoa
 - Aldizkarietako iragarkiak
 - Erregaiak
 - Jaiak
 - Zergak
 - Garbiketa
 - Bulegoko materiala
 - Konponketak eta zainketa
 - Hornidurak (telefonoa, etab.)
 - Askotariko gastu arruntak (aseguruak, etab.)
- C) **“KUDEAKETA GASTUAK” ZUTABEA:** era guztietako ordainsariak eta ordezkariak gastuak: dietak, ordainsariak, otorduak, etab.
- D) **“FINANTZA GASTUAK” ZUTABEA:** maileguen interesen, bankuko komisioen eta gainerako bankuko gastuen eta gastu finantzarioen ondoriozko gastuak bilduko dira.
- E) **“INBERTSIOAK” ZUTABEA:** azpiegiturak sortzera eta zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren higiezin eta higigarriak edo ondarea erostera bideratutako gastuak bilduko dira:
- Obrak (hornidura, saneamendua, urbanizazioak, etab.)
 - Higigarriak, makinak, etab. eskuratzea.
 - Konponketa handiak
 - Urtebete baino gehiago irauten duten higigarriak, ekipo informatikoak, inbertsio ondasunak.
- F) **“MAILEGUEN AMORTIZAZIOA” ZUTABEA:** maileguak, kredituak eta foru lerroak ezeztatzeke ordaintzen diren zenbatekoak biltzen ditu. Amortizazioak.
- G) **“FINANTZA INBERTSIOAK” ZUTABEA:** zutabe honetan biltzen da bankuko libretatik ateratzen den dirua edo inbertsio fondoak (altxorraren letrak, gordailuak, inbertsio fondoak, etab.) eratzearen bidez beste libreta batera transferitzen den dirua.
- H) **“ZERBITZUA” ZUTABEA:** gastua sailkatzen bada “ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK” edo “KUDEAKETA GASTUAK” zutabeetan, zerbitzu mota adierazi behar da, "KOSTUEN EGOZPENA" izeneko 3. ataleko jarraibideen arabera.



3 KOSTUEN EGOZPENA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 116ter artikuluan, berritasun bat sartu zuen 2014ko ekitaldirako, toki erakundeek kostuen kontabilitatea eraman beharra barne.

Informazio hori Arabako Foru Aldundira bidaltzeko azken eguna 2023ko azaroaren 1a da. Hala ere, eta kontzejuek lana ez bikoizteko, urteko kontuen zati gisa **kostuen kontabilitatearen eredu erraztu bat** sartu da.

Urteko kontuak aurkezteko azken eguna lehengo bera da, 2023ko maiatzaren 1a, eta kostuen kontabilitatea ez dago urteko kontuei lotuta.

ZUTABEEN INGURUKO ARGIBIDEAK:

A) **ZERBITZU KODEA:** zerbitzuaren kode numerikoa. Zutabe aldaezina.

B) **ZERBITZUA:** bertan jasotzen da kostuak zein zerbitzuri dagozkion, eta ez dute zertan izan kontzejuek ematen dituen guztiak. Kontzeju guztiak ez dituzte zerrendako zerbitzu denak ematen. Zerbitzuren bat ematen ez bada, horren datuak hutsik utzi behar dira. 10. atalean (Bestelakoak), aurretik aipatu ez diren bestelako zerbitzuez gain, kontzejuaren gastu orokorrak jaso behar dira (kontzeju etxea etab.). Zutabe aldaezina. 10. lerro honen gainean ez da kalkulatu unitateko kostua.

1	Kale argiteria
2	Hilerria eta hileta zerbitzuak
3	Bideak garbitzea
4	Edateko uraren etxez etxeko hornikuntza
5	Estolderia
6	Bide publikoen zolaketa
7	Parke publikoa
8	Hondakin uren ebakuzioa eta tratamendua
9	Erabilera publikoko kirol instalazioak
10	Bestelakoak

C) **URTEKO KONTUETAKO GASTUA:** zerbitzu bakoitzari egoztekoa den gastua, kalkulaturik gastuen orriko "ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK" eta "KUDEAKETA GASTUAK" zutabeen batura gisa.

D) **IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA:** hemen bete behar da, jakinez gero, 1etik 9rako zerbitzuetako elementuen urteko amortizazioa. Gainerakoa 10. atalean jarriko da.

E) **KOSTUA GUZTIRA:** aurreko bien batura.

F) **NEURRI UNITATEA:** zerbitzu bakoitzaren kostua zer unitatetan kalkulatu den, izaeraren arabera. Zutabe aldaezina.

G) **NEURRI UNITATEA GUZTIRA:** neurri unitateen zenbakizko adierazpena (guztira zenbat metro kubiko ur, guztira zenbat metro karratu, ...).



H) UNITATEKO KOSTUA: aterako da URTEKO KONTUETAKO GASTUA zati NEURRI UNITATEA GUZTIRA eragiketa eginda.

Kalkuluak paperean edo euskarri elektronikoan egin daitezke.

1) Euskarri elektronikoan. Kontuak Excelen egitea aukeratzen bada, horrek urteko kontuetan dagoen informazioa era automatikoan jarriko du kalkulu orrian, baldin eta GASTUAK orriko “ZERBITZUA” zutabea kode numerikoa sartzen bada, aipatutako 1etik 10era doazen zenbakiena.

Horrela, Excelekin batu egingo ditu zerbitzu bakoitzaren datuak, gastuen orriko “ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK” eta “KUDEAKETA GASTUAK” zutabeetan jarriak, eta emaitza kostuen orriko “URTEKO KONTUETAKO GASTUA” zutabera eramango du.

Bete behar da, jakinez gero, zerbitzuetako elementuen IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA zutabea, bai eta zerbitzu bakoitzaren NEURRI UNITATEA GUZTIRA ere, dagokion bezala. Beste zutabeak era automatikoan betetzen dira. Orriak, horrekin guztiarekin, kostuak erakutsiko ditu, kalkulu gehiago egin beharrik gabe.

2) Paperean. Aukera hau eginez gero, GASTUAK orriko “ZERBITZUA” zutabea kode numerikoa sartzeaz gain, eskuz egin behar da “ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK” eta “KUDEAKETA GASTUAK” zutabeen batuketara, eta kostuen orriko “URTEKO KONTUETAKO GASTUA” zutabea jarri.

Gainerako zutabeak bete behar dira “ZUTABEEN INGURUKO ARGIBIDEAK” ataleko jarraibideak aintzat hartuta.